

Gida hau osatu duten liburutegiak:

- Aramaioko Udal Liburutegia
- Aretxabaletako Udal Liburutegia
- Arrasateko Udal Biblioteka
- Bergarako Udal Liburutegia
- Eskoriatzako Udal Biblioteka
- Legazpiko Udal Liburutegia
- Oñatiko Udal Liburutegia



LIBURUAK

0+ URTE



CACAHUETE Y MEDIO
Katie Klein _____ BANG

Una aventura sin palabras, en la que en un almacén oscuro Cacahuete y su compañero emprenden una misión secreta llena de sorpresas y aventuras. Sus amigos cacahuetes cuentan con ellos para traerles algo muy especial...



¡CHOF!
Patricia de Cos _____ IGLÚ

Libro que fomenta el poder de la imaginación enseñándonos qué se puede llegar a hacer con una sencilla mancha de tinta. Porque Chof, es una mancha... ¿o no?



DIN DILIN DAN
Pello Añorga _____ DENONARTEAN

Bilduma ederra Pello Añorga idazle eta kontalariak eskaintzen diguna liburuxko honetan. Euskal tradizioetik jasotakoak bai egileak berak sortuak, etxeko txikienekin aritzeko kanta, jolasteko eta errezitatzeko olerkiak. Ez dugu ahaztu behar ahozko tradizioa haurren artean irakurketa sustatzeko modu bikaina dela. Adi QR-ei!




EL CUENTO DE PERICO EL CONEJO
Beatrix Potter _____ BEASCOA

Clásico de la literatura infantil donde se narra con humor y sencillez las aventuras del travieso y desobediente Perico el Conejo. Escrito e ilustrado por Beatrix Potter hace 120 años, este fue su primer libro.



OPARI EZBERDIN BAT
Marta Azcona; Rosa Osuna _____ KALANDRAKA- PAMIELA

Tristanek soberan duen oihal zati bat oparitu dio Martxelo lagunari. Honek nahiago zuen ziba bat baina, azkenean oso eskerturik azalduko da oihal zati xume batekin egin daitekeena ikusirik. Irudimenaren garrantzia azpimarratzeko album atsegina. Askotan gauza sinpleenak dira hoberenak.



PERU SAGUTXOA
Joe Todd-Stanton _____ TTARTTALO

Peru sagutxoari bere kasa bizitzea gustatzen zaio, gustuko du bakarrik egotea. Baina egun batean ustekabeko gonbidatu bat izango du afaltzeko eta hemendik aurrera lagunekin partekatzea ez dela hain txarra konturatuko da, noizbehinka bada, noski.

6+ URTE



EL REY PATATA
Christoph Niemann _____ MALPASO

Una historia divertida en la que se narra la gesta de Federico II de Prusia; un rey que quiere que su pueblo comience a comer patatas. El problema es que no las han probado y la idea no les gusta. El rey tiene un plan para convencerles... ¿dará resultado?



FAB: EL MONSTRUO AMARILLO
Carme Solé _____ KALANDRAKA

Fab se ha despertado con un dolor de cabeza terrible, ¡pero Fab es genial! De color amarillo y optimista por naturaleza persevera en su camino superando todas las trabas. ¡Déjate contagiar de su tesón y alegría!



HAU NEURE ZUHAITZA DA
Olivier Tallec _____ TXALAPARTA

Maite dut zuhaitz hau. NEURE zuhaitza da. Maite dut NEURE pinaburuak jatea, NEURE zuhaitzaren gerizpean. NEURE zuhaitza da eta NEURE pinaburuak. Mundu guztiak jakin behar du hauek NEURE pinaburuak direla eta hau, NEURE zuhaitza. Zer egingo dut besteengandik babesteko?



KIXKUR: PINTTOREN ARREBA
Iñigo Astiz; Mikel Valverde _____ ELKAR

Pinttok, abestiko Pintto famatu horrexek bazuen arreba txiki bat Kixkur izenekoa eta hau bere istorioa da. Iñigo Astizen hitzek eta Mikel Valverderen irudiek bikain ekartzen digute Pinttoren arrebaren istorioa, barkatu, Kixkurren istorioa.



TIEMPO DE HAIKUS
J. N. Santaaulàlia _____ AKIARA BOOKS

El haiku es un poema brevísimo, de solo tres versos cortos y originario de Japón, que nos ayuda a sentir el instante y a descubrir la belleza de los detalles. Te invitamos a un viaje de inmersión en la naturaleza a través de las cuatro estaciones.



ZOZO ERGELAK ETA AZERI GAIZTOA
Txiliku; Enrique Morente _____ ELKAR

Xoxope eta Xoxopa pozik bizi ziren lorategi batean haien 4 kumetxoekin, Lukianton azeri gaiztoa agertu zen arte. Hemen hasten da beraien zorigaiztoa. Ahozko literaturan oinarritutako istorioa da Txilikuk kontatzen diguna, umorea eta erritmo bizia jorratuz. Haurrei kontatzeko ipuin aproposa.

9+ URTE




DAGFRID: UNA NIÑA VIKINGA
Agnès Mathieu-Daudé; Olivier Tallec _____ FLAMBOYANT

Dagfrid es una inconformista y divertida niña vikinga que no duda en desafiar las convenciones sociales. Se ha hartado de comer pescado seco y de no poder viajar y descubrir el mundo, hasta que un día... ¡No dudes en averiguar qué es lo que pasa!



JAKELINEN EGUNEROKOA
Nerea Ibarzabal; Higinia Garay _____ IKASELKAR

Jakelinek ia 9 urte ditu eta uste du bere familia ez dela bere benetako familia; susmoa du beste planeta batetik datorrela. Eta orain bere misioa bere jatorrizko etxera itzultzea da. Prest zaude Jakelinen egunerokoa irakurri eta abentura estralurtar bat bizitzeko?



MEMET
Noémie Marsily _____ A FIN DE CUENTOS

Lucy neskatoa kanpin batera joan da udako egun batzuk pasatzera. Bertan Roman gaztea dago, mutiko abenturazale eta zakarra. Bien arteko hasierako mesfidantzak leunduz joango dira, gordetzen dituzten sekretuak eta bizipen gogorak agerian geratzen diren heinean. Lasai irakurtzeko istorio hungigarria.



MISS CAT: EL CASO DEL CANARIO
Jean-Luc Fromental _____ LIBROS DEL ZORRO ROJO

La detective Miss Cat tiene un nuevo caso que resolver, el secuestro de Harry, un canario. Necesitará toda su intuición e inteligencia felina para desenmascarar a quienes lo han secuestrado, que definitivamente, no son lo que parecen.



PISCINA
Will Gmehling _____ VEGUETA

Los hermanos Bukowski se han hecho famosos por salvar a un bebé de ahogarse, y su recompensa es mucho más valiosa que la fama: ¡todo un verano en la piscina municipal! Día a día irán superando sus límites dentro y fuera del agua. La diversión está asegurada.



7G: UDALEKUAK
Nerea Loiola Pikaza _____ EREIN

Liburu honetan gertatuko dena zure eskuetan dago. Zu zara protagonista! Arriskuak, dilemak eta abenturak aurkituko dituzu eta ondoren erabakiak hartu. Erabaki txar batek hondamendia eragin dezake! Ausartuko zara? Aukeratu zure abentura eta zorte on!

GAZTEAK



ABEREEN ETXALDEA
George Orwell; Quentin Gréban _____ IBAIZABAL

Manor etxaldean matxinada piztear dago. Gizakiak dira haien etsaiak! Animalia guztiak berdina dira! Egundean, txerriek, azkenean, etxaldeko kontrola eskuratu eta funtzionatzeko ordena berria ekarri dute. Grebanen marrazki bikainek Orwellen eleberrir ospetsu hau ilustratu dute.



DE LA BOCA DE UN LEÓN
Inés Garland _____ EDELVIVES

Tadeo es el hermano menor en una casa llena de secretos y sufrimiento. Cuando conoce a Vera y a su familia, tendrá la oportunidad de ver otras maneras de afrontar la vida y sus propios sentimientos. Intensa novela que nos hará vibrar como si fuésemos su protagonista.




IMPARABLES: DIARIO DE CÓMO CONQUISTAMOS LA TIERRA
Yuval Noah Harari _____ MONTENA

Yuval Noah Harari es uno de los pensadores más influyentes en la actualidad. Este libro para jóvenes cuenta la historia del ser humano desde los tiempos en que no éramos más que simios de la sabana hasta casi la época actual. Un libro divertido pero también extremadamente serio que hará reflexionar a todo el que se acerque a él.



HAUR BESOETAKOA: ITSASOAN URAK HANDI
Unai Iturriaga; Alex Sanvi _____ IKASTOLEN ELKARTEA

'Haur Besoetakoak' sailaren 3. liburukia da hau. Oraingo honetan, protagonistek oztopoz beteriko bidaia egingo dute, arriskuz eta emozioz jositako ibilbidea. Abentura, ironia, emozioa eta irakurketaren plazera ziurtatuta daude euskal komiki honetan. Hasi dadila abentura!



MUNDUARI BIRA EMAN ZION ONTZIA

Joseba Sarrionandia; Ares _____ PAMIELA

Munduari emandako lehenengo bira, Magallanesen eta Elkanoren itsasaldi entzutetsua aitzakia hartuta, amona eta biloba baten arteko elkarriketa eran aurkeztutako obra. Ironia puntu batekin idatzitakoa. Historia ez ezik, gogoeta egitera gonbidatzen duten gai asko azaltzen diren kontakizuna. Hamabi urtetik ehun eta hamabi urtera arteko irakurleek goza dezaketen liburua da!




PARA SIEMPRE

Assia Petricelli; Sergio Riccardi _____ ASTRONAVE

Viola últimamente le da vueltas a todo: a su reflejo en el espejo, a cómo la ven los demás, a qué puede hacer para encajar mejor... Pasar las vacaciones en un pueblo costero parece perfecto para relajarse, pero le espera un verano lleno de sorpresas.

HELDUAK



ATSOA

Victor Català _____ TXALAPARTA

Hamar narrazio biltzen dira Caterina Albert i Paradis idazlearen liburu honetan, modernismo katalanaren ikurtzat jotzen dena eta gizon izen-abizenekin sinatzen zuena. Literatura katalaneko egile handi honek ipuin gordin eta basatiak aurkezten dizkigu, barrenak astinduko dizkizutenak.



ATZAMARRA

Asun Agiriano; Marina García_____ ELKAR


Ez du hitz askorik erabili Agirianok aitona-amonen garaiko istorio bat kontatzeko. Istripu berean amona eta hatza galtzen dituen neskatila baten egiazko historia da hau. Azken batean, galeraren inguruko kontakizuna da. Ilustrazioek bikain osatzen dituzte narrazioaren elipsiak eta egiazkotasuna ematen diote. Album zoragarria!



BAR GLORIA

Nerea Ibarzabal Salegi _____ SUSa

Gloria taberna dauka erdigune nobela honek; bere protagonista nagusiak, berriz, Ana, Rakel eta Migel. Denboran atzera eta aurrera, tabernako bizitza, tradizioa eta modernitatearen arteko talka, homosexualitatea, etxebizitzaren problematika, gaixotasuna, eta maitasuna dira Ibarzabalen lehen eleberri honetan aurkituko ditugun gaiak.



BERRIZ ZENTAURO

Katixa Agirre _____ ELKAR

Etorkizun hurbil batean, Paula Parisen dago, Mary Wollstonecraft feminista aitzindariaren bizitzari buruzko errealitate birtualeko proiektu pedagogiko bat egiteko informazio bila. Gure bizitza nolakoa izango den irudikatu du Katixak, hausnarketarako gai ugari proposatzearekin batera.



CASO CLÍNICO

Graeme Macrae Burnet _____ IMPEDIMENTA

El autor recibe una carta con unos cuadernos que cuentan la historia de una mujer en los años 60 en Londres. En ellos investiga si el suicidio de su hermana fue instigado por su psiquiatra. Esta historia y la vida del psiquiatra se intercalan en esta intrigante novela.



DRAGMAN

Steven Appleby _____ ASTIBERRI

Cuenta la historia de un hombre que tiene superpoderes. Tiene muchos niveles de lectura y una adictiva estructura. Su protagonista, combate la codicia, el mal y sus propias inseguridades en una lucha interna por rescatarse a sí mismo y redimir el alma humana. ¡Obra a la que merece la pena prestar atención!



HAURREK HITZA

Lidia Txukovskaia; Lidia Zhukova _____ KATAKRAX

Haurren testigantzen bitartez, inolako dramatismorik gabe, ohikoa ez den ikuspegi batetik ezagutuko dugu gerra. Errusieratik euskarara itzulia, ez dago bestelako hizkuntzatar itzulita. Gogorra bezain laburra (80 orrialde), gerraren aurkako eta bakearen aldeko manifestua! Gazteentzat zein helduentzat ezinbestekoa!



LA DISCIPLINA DE PENELOPE

Gianrico Carofiglio _____ DUOMO

Una mujer dura y frágil. Un homicidio sin resolver. Un padre en busca de la verdad. Carofiglio es uno de los mejores novelistas del género negro de Europa. Absorbente y bellamente escrita, su lectura es adictiva. Literatura policíaca de la buena.



LA FAMILIA

Sara Mesa _____ ANAGRAMA

Con una prosa natural y sencilla, Sara Mesa nos ofrece la radiografía de una familia de clase trabajadora formada por dos niñas, dos niños, una madre y un padre. Abarca situaciones y vivencias que critican la institución familiar (autoritarismo, obediencia..) y anhelan los derechos de la libertad.



LA POESÍA DE LOS ÁRBOLES

VV.AA _____ NÓRDICA

Impecable edición para quienes aman los árboles, la poesía y la naturaleza. Más de setenta poemas ilustrados que nos llevan de viaje alrededor del mundo, desde Latinoamérica hasta Japón, en un libro artístico que alimenta y aquieta nuestra hiperactividad.



LA PROMESA

Damon Galgut _____ LIBROS DEL ASTEROIDE

La narración sigue los pasos de los Swart a lo largo de más de tres décadas, una familia blanca que vive desde hace generaciones en una granja en las afueras de Pretoria, Sudáfrica. Original y conmovedora novela galardonada con el premio Booker 2021.



MAUS

Art Spiegelman _____ ASTIBERRI

Holokaustoari buruz inoiz idatzi den narraziorik hunkigarriena eta arrakastatsuena euskaraz orain. Ezinezkoa egingo zaizu irakurtzeari uztea, sufrimenduz eta umorez zipriztindutako kontakizun aparta.



POEMA LIBURU BAT: IRAKURTZEKO JARRAIBIDEAK

Angel Erro _____ EREIN

Esku artean duzun hau poema liburu bat da; ez pentsa, halere, adituentzako denik. Hori bai, denbora behar izaten da, azkenean, poesia hitzak denbora geldiaraztea baitakar. Zoaz soseguz, lasai joan, poesia lagun aldamenean.



SONIEXKA

Ludmila Ulitskaia_____ PASAZAITE

Gizon baten eta hiru emakumeren arteko harremanaren parabola interesgarria, baina, batez ere, emakume arrunt baten patuari buruzko narrazio sotil eta adimentsua, zeinaren bidez joan den mendeko Errusiaren historia irakurtzen dugun: erregimen sobietarra eta bere hondamena.



VENGO DE ESE MIEDO

Miguel Ángel Oeste_____ TUSQUETS

Miguel Ángel Oeste desciende al abismo de sus recuerdos y, en una dolorosa investigación, confronta su memoria con la de familiares y conocidos para elaborar un testimonio desgarrador, que a la vez es una crónica de los últimos cuarenta años de este país.



VUELTA AL PAÍS DE ELKANO

Ander Izagirre _____ LIBROS DEL K.O.

Un recorrido en bicicleta en el que la figura de Elkano sirve como excusa para explorar cómo era la sociedad de entonces y la de ahora, y navegar tras las huellas de esa sociedad vasca tan ligada al mar. Una propuesta entre la crónica de viajes, el ensayo y la narración de relatos fascinantes.

MUSIKA



BIZI BAGINA BEZALA

Nhil _____ POP, FUNK

Debagoieneko talde gazteak, bere bigarren disko honetan, freskotasunez uztartu ditu popa, soula eta funka bezalako generoak. Este segundo disco de la joven banda de Debagoiena mezcla con mucha frescura géneros como el pop, el soul o el funk.



DIVINE TIDES

Stewart Copeland; Ricky Kej _____ NEW AGE

Soinu-paisaiez, melodiez, eta geruza eta erritmo ezberdinez osatutako musika-proiektu anitza. 2022ko New Age album onenaren Grammy saria jaso du. Disco que presenta un lienzo musical diverso de paisajes sonoros, melodías, texturas ambientales y ritmos. Grammy 2022 al mejor álbum New Age.



MULTITUDE

Stromae _____ ELEKTRONIKOA, HIP HOP

Belgikako abeslariaren hirugarren diskoan, soinu sorta zabala dago, denak batera konbinatuta: trap, elektronika, erritmo latinoen eta ekialdekoen fusioa. Ongi etorri beraz, berriz, Stromae.

En el tercer disco del cantante belga, hay un amplio abanico de sonidos combinados todos juntos: trap, electrónica, fusión de ritmos latinos y orientales. Bienvenue à nouveau, Stromae.



NEOMAK

Neomak _____ FOLK

Taldearen izen bera aukeratu du Neomak taldeak bere estreinako lanari izena jartzeko. Zazpi emakume gazte dira eta zazpi abestiz osatutako diskoa kaleratu berri dute. Combinan tradición y sonidos contemporáneos y electrónicos. Folk euskaldun renovado que nos invita a bailar y a escuchar atentamente sus letras.



SKINTY FIA

Fontaines D.C. _____ ROCK

Fontaines D.C.k bere diskografia erakitzeko darabilen zorrotasuna benetan miresgarria da. Kontzesiorik egin gabe, baina edozertarako asmotan. El quinteto irlandés vuelve en favor de territorios más melódicos y un envoltorio más pop, sin renunciar, eso sí, a letras agrias y reflexivas.

FILMAK



CINCO LOBITOS

Alauda Ruiz de Azúa _____ DRAMA

Amaia ama izan berri da. Sortuko diren zailtasunak direla eta, gurasoen etxera itzuliko da laguntza bila, baina bertan gauzak okertu eta amaz gain alaba ere badela ohartuko da. La película se mete de lleno en el vínculo que une y separa a cada miembro de esta familia, en una dinámica que, como en las de muchas familias, se entiende más en lo que no se dice que en lo que se dice.



ENNIO: EL MAESTRO

Giuseppe Tornatore _____ DOKUMENTALA

XX. mendeko konpositore ezagun eta emankorrena den Ennio Morriconeri buruzko dokumental biografikoa. Besteak beste, Bertolucci, Oliver Stone, Tarantino edota Bruce Springsteen-en testigantzak jasotzen ditu. Documental biográfico sobre Ennio Morricone, el compositor más popular y prolífico del siglo XX. Contiene, entre otros, testimonios de la talla de Bertolucci, Oliver Stone, Tarantino o Bruce Springsteen.



LAS ILUSIONES PERDIDAS

Xavier Giannoli _____ DRAMA

Honoré de Balzacen maisulanean oinarritutako filma honek, Parisen arrakasta lortzea amesten duen anbizio artistikoak dituen probintzietako gazte baten istorioa kontatzen du. Lo extraordinario de esta adaptación es su curiosa conexión con la actualidad especialmente en el retrato que borda de los medios de comunicación y de los centros del poder.



PARÍS, DISTRITO 13

Jacques Audiard_____ DRAMA ROMÁNTICO

Lau gazteren arteko harremanen bitartez, zuzendariak agerian jartzen ditu belaunaldi berriek dituzten zailtasunak maitasuna, sexua eta egonkortasuna bilatzeko egungo mundu teknologiko eta globalizatuan. A través del retrato de cuatro jóvenes, Audiard reflexiona sobre el amor, el sexo y la estabilidad de la generación milenial, en una realidad tecnológica, globalizada y de escaso horizonte.



UN HÉROE

Asghar Farhadi _____ THRILLER, DRAMA

Zuzendari irandarrak bere herrialdeko egunerokotasunean murgilduko gaitu berriro, giza miseriak eta gizartearen hipokrisia maisuki azaleratuko diren pertsonaia normal eta ezagunekin.

El director iraní nos vuelve a sumergir en la cotidianidad de su país con personajes normales y reconocibles donde las miserias humanas y la hipocresía de la sociedad saldrán a relucir de forma maestra.